HAMAR URTE BARRU

JAIONE TELLLETXEA MENDIGUTXIA
DBH 1. eta 2. kurtsoak 1. saria
Berako Labiaga ikastola

Udako arrats berotsuetako bat zen. Aspaldiko partez lagunekin elkartu nintzen etxetik kanpo afaltzeko, herriko aterpetxeko jatetxean hain zuzen ere. Afari bikaina pasa ondoren, koadrilako mutilekin elkartu eta harrapaketetan jolasten pasa genuen denbora, 12ak eman zizkiguten arte, Mari Errauskinen moduan etxera joan beharrekoak ginen eta.

Etxera iritsi bezain laster, aita ikusi nuen atarian nire zain. Besoak sabel aurrean gurutzaturik zeuzkan eta niri begi haserretuekin begiratzen zidan bitartean, izugarrizko mutur beltza jarri zuen.

–Estitxu!– aurpegi beldurgarriarekin oihukatu zidan– Ez ditut eskaturiko lanak eginak ikusi, berriro ere! Ez dituzu etxeko lanak egin, ez duzu zure gela txukundu, ez dituzu ontziak lehortu...! Aski da! Honi bukaera jarri behar zaio!

Bultzada batez etxean sartu ninduen eta oherantz bidali ninduen, hurrengo egunen zigor gogor bat jarriko zidala esanez. Ni oso haserre nengoen nire aitarekin eta hamar urte gehiago izan nahi nituela deseatu nuen.

Hurrengo goizean, begi bat gogorik gabe, motelean ireki nuenean eta segidan berriz itxi nuenean, arraro sentitzen nintzen, ez nuen ohetik altxatzeko gogorik eta gutxiago nire aitaren sermoi aspergarriak entzuteko. Bat-batean norbait nire ondoan etzanda zegoela iruditu zitzaidan, albora begiratu eta gizon bat zegoen nire ondoan. Begiak kolpe baten ireki nituen eta salto izugarri batez ohetik atera nintzen.

–Nor zara? Zer egiten duzu nire ohean? Non nago?–esan nuen oso urduri nengoelarik.

–Estitxu zer gertatzen zaizu? Zergatik zaude horren urduri? Ni Urritz naiz, zure mutil laguna. Gure etxean gaude aspaldian erosi genuen, ez zara gogoratzen? Zer amets gaizto bat izan duzu?

–Bai, bai! Barkatu baina oso urduri jarri naiz.

Korrika batean, sukaldera joan nintzen eta 2020an geundela konturatu nintzen, hamar urte pasa ziren eta ni ez nintzen konturatu ere egin!! Pentsatzen hasi nintzen eta orduan desio bat pentsatu nuela gogoratu nintzen! Oso kezkatua nengoen, ez nekien zer egin nuen hamar urte hauetan, desberdina nintzen, helduagoa. Orduan Urritzi egia kontatzea erabaki nuen, berak lagunduko zidala pentsatzen nuen, azkenean bera nire mutila zen ezta?

Dena kontatu ondoren, Urritz harrituta geratu zen, ez zekien egia edo gezurra esaten ari nintzen. Orduan nire bizitza hamar urte hauetan nolakoa zen esplikatzen hasi zitzaidan:

Ile apaindegi eder eta polit bat neukan, baina hala ere, ikasten jarraitzen nuen, musika irakasle izateko ikasten ari nintzen, kontserbatorio batean sartuta nengoen. Lagun asko nituen, duela hamar urteko lagun berdinak, baina, ez horiek bakarrik, kontserbatorioan, institutuan... lagunak egin nituen. Nire bizitza oso polita zen nik betidanik izan nahi dudan bezalakoa.

Uda zenez, ez nuen ikastera joan beharrik, baina bai ile apaindegira. Ez nuen jendea ezagutzen baina suertez gaur lan gutxi nuen.

Ongi igaro nuen eguna, jendeak ez zuen ezer nabaritu eta nire bizitza perfektua zen, asko gustatu zitzaidan.

Hurrengo goizean ez nuen lanik eta Urritzek Lesakatik bueltatxo bat ematera gonbidatu ninduen. Lesaka aldatuta zegoen, etxe gehiago eta modernoagoak bazeuden. Etxe zaharrak ere, aldatuta zeuden, berrituta. Mendiko auzoetan etxe aunitz zeuden, beharrezkoak baino gehiago, ez zitzaidan ongi iruditzen, zuhaitzak egon beharko ziren lekuetan, etxeak zeuden. Dena hondatuta zegoen.

Etxera bueltatzerakoan, hamahiru urte izan nahi nituen berriro, etxera bueltatu nahi nuen, aitaren sermoiak aditzera, zigortuta egotera... orduan aita ulertzen hasi nintzen, handia izatea ez da erraza eta nik ez badut laguntzen oraindik zailagoa nire aitarentzat.

Orduak eta orduak pentsatzen igaro ondoren, ohean sartu baino lehenago desioa eskatu beharra neukan eta kito.

Hurrengo goizean oso kontent ohetik altxatu nintzen, baina ez, ez nituen berriz 13 urte. Hurrengo goizean berdin, eta hurrengoan, eta hurrengoan... Horrela egun pilo bat pasatu arte.

Horietako egun batean, Urritzek mendian piknik bat egitera gonbidatu ninduen, arratsez mendira joango ginen eta hantxe afalduko genuen, hori zen plana. Nik gogotsu baietz esan nuen, ea horrela ahazten nintzen pixka bat.

Arratsa iritsi zenean, Urritzek zapi batekin begiak estali zizkidan, nik ezer ez ikusteko. Mendira iristerakoan, zapia kendu zidan, dena oso polita zegoen; mantela gorri bat lurrean, mantelaren gainean janari pilo bat eta dena kandelez inguraturik zegoen. Txundituta geratu nintzen.

–Urritz, ez zenuen zergatik niregatik horrenbeste kezkatu behar –esan nion.

–Lasai neska, ez da ezer izan eta!–erantzun zidan.

Patxada osoan afaldu eta gero, izarrei begira pasa genuen denbora. Halako batean, izar uso bat pasatu zen, Urritzek desio bat eskatzeko esan zuen eta nola ez, nik, hamahiru urte izan nahi nituela berriz, eskatu nuen.

Arratseko bietan iritsi ginen etxera eta segidan ohean sartu nintzen ezinean, oso nekatuta nengoen.

Hurrengo goizean, esnatzerakoan, Urritzeri begiratu nion, baina ez zegoen hor! Ohetik salto batean jaiki nintzen, nire etxean nengoen berriz! A ze poza! Aitarengana joan nintzen, besarkada eder bat eman nion.

–Estitxu horrela ere ez dizut zigorra kenduko.–esan zidan nik begi negartsuekin begiratzen nion bitartean.

–Lasai aita, nahi baduzu munduko zigorrik gogorrena jarri, baina, orain badakit oso inportantea dela zuretzat nik laguntzea.

–Hala eta orain ohera– esan zuen amatxik

–Amatxi istorio hau benetan gertatu al zaizu?–galdetu zion haurrak amatxiri, hitz egiten jarraitzeko.

–Bai, baina ezin diozu inori kontatu. Ados?

–Ados. Baina bihar beste ipuin bat kontatzen badidazu!

–Ongi da baina orain lo egitera, benga!

–Bihar arte amatxi!

–Bai bihar arte!